

# JANARI OSASUNTSUEN

# JANARI AZKARRA

Garrantzitsua da jakitea **erabakigarria dela** bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko **kanalen konbinazio zuzena aurkitzea** merkatura balio-proposamen bat eraman eta **arrakasta lortzeko**. Honakoak dira enpresa edota erakunde batek aukera ditzakeen kanal motak, adibidez: Bezeroengana iristea **kanal propioak** erabiliz (denda propioak, ohikoak zein online motakoak, eta komertzialak).



**Elkartutako kanalen bidez** (euren produktuak saltzen dituzten denda elkartuen bidez). Eta azkenik aurreko bien arteko **nahasketa eginez**.

Gure kasuan, Otik hasi den lokal fisikoa denez, hau da, Barakaldo osoan eta inguruetan inoiz ireki ez den lokala, berria denez eta ekimen berri batekin, komunikazio-bideak oso garrantzitsuak izan beharko liratekeela uste dugu. Hainbat sortu eta martxan jarri ditugu, adibidez, eta nagusiki **Instagram** plataforman lokalaren **perfil** bat sortu dugu. Batez ere plataforma horretan, gure lokala jende gazteari zuzenduta baitago neurri handi batean, gaur egun gazteek gehien erabiltzen duten plataforma delako, eta gure bezeroengana iristeko modu bikaina dela uste dugu, gure lokalak eskaintzen dituen azken berrien eta promozioen berri izan dezaten.

[https://instagram.com/asparagusbarakaldo?utm\\_medium=copy\\_link](https://instagram.com/asparagusbarakaldo?utm_medium=copy_link)

Gaur egungo gazteek asko erabiltzen duten sare sozial batean profil bat sortzeaz gain, gure publikora iristeko beste modu batzuk ere badaudela uste dugu. Lokala batez ere gazteei zuzenduta dago, baina jende guztiarentzat da. Gure bezero gazteei deitzeko ahaleginak egin ditugunez, jende zaharrenak ere

**publizitate-kartelak** sortu eta hiri osoan zehar jarriko ditugu. Kartel horiek jende gehien pasatzen den lekuetan jarriko ditugu, hala nola atarrietako sarreretan, publizitate gehiago dagoen pareta batzuetan, farola batzuetan... Karteletan gure lokalaren irekiera modu deigarrian iragarriko dugu, jendearen arreta deitu ahal izateko.

Oso egingarria ikusten dugun beste komunikazio-bide bat Barakaldoko eta inguruko etxebizitza gehienetako postontzietan sartzeko **panfeltoak** dira.. Honekin, adin guztietako pertsona askori aiegatea . Normalean jende gehienak bere postontzietan dituzten panfeltoak ez dira interesatzen edo bota egiten dituzte, baina gure kasuan %10eko deskontua eskaintzen dugu irekiera egunean eta jendearen gustukoak izan daitezkeen eskaintza asko. Aldi berean, inguruneko ikastetxe eta institutuen irteeretan panfleto hauek banatzea ideia oso on bat dela uste dugu, hau eginez elikagai eta janari osasuntsuen kontsumoa susta dezakegu **gazteenen** artean.

Gure lokala desberdina da, eta azken urteotan Barakaldon eta inguruetan ez dute inoiz horrelako lokalik ireki. Eta honek jende asko dei dezake gure platerak probatzera.

Beste alde batetik, enpresa edo lokal guztiek banaketa-bideak dituzte; izan ere, lokal fisikoa denez, bereizbide nagusia platerak lokalean bertan eskaintzea litzateke. Baina jende gehiagorengana iristeko eta jendeak etxetik etxez etxeko eskaerak egiteko aukera izan dezan, **GLOBO** zerbitzua kontratatzea erabaki dugu, banatzailearen bat edukitzeko, jendeak etxetik gure plateraz gozatzeko aukera izan dezan. **GLOBO** aplikazioaren bidez online eskaera egitea eta banatzaile batek etxera eramateko aukera emateaz gain, gure janaria lokalean kontsumitzeko aukera ere eskaintzen dugu, jarduera mota horretarako egokitutako guneak baitaude. Lokalean eta etxez etxe zerbitzuz gain, lokalean gure produktuak eskatu ahal izateko aukera eskaintzen dugu, etxetik eskatu edo lokalean kontsumitu beharrik gabe.